BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5171

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 5ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Kulturako sailburuaren 2012ko ekainaren 20ko Aginduko diru-laguntzak esleitzeko ebazpena argitara emateko dena. Kulturako sailburuaren agindu horren bitartez, publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautu zen.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan publikotasun-printzipioa bete behar denez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpena, onuradunen zerrenda, finantzatutako proiektuak eta emandako zenbatekoak adierazten dituena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, interesdunei banan-banan jakinarazteaz gain, horrela xedatzen baita publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautzen duen Kulturako sailburuaren 2012ko ekainaren 20ko Aginduan.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Kulturako sailburuaren 2012ko ekainaren 20ko Aginduaren babesean 2012ko ekitaldian emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Agindu horren bitartez, publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautu zen.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 5a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ERANSKINA

Onuraduna	Proiektua	Zenbatekoa
Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscal, S.L.	Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscalen artxibo historikoa deskribatzea	8.000
Euskal Herriko Bertsozale Elkartea	Bertsolaritzaren ondarea Interneten argitaratzea: bertsoaldien audio antologiak hedatzea	9.500
Eusko Ikaskuntza	M. de Irujoren artxiboa katalogatzea, digitalizatzea eta on line hedatzea	9.000
Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua	Artxiboaren antolaketaren bigarren fasea eta funts historikoa digitalizatzea	5.000
HBIP Gregorio Ybarra Bizkaiko Gorrak	Artxibo historikoa egituratzea	3.000
Iturria Reparaz, M.ª Isabel	Iturria artxiboa digitalizatzea	11.000
Jesusen Lagundia-Loiolako Santutegia	Aita Nemesio Otaño jesuitaren posta-trukearen hustuketa	9.000
Jesusen Lagundia-Loiolako Santutegia	Loiolako administratzaileen XVIII. mendeko posta-trukearen hustuketa	9.000
Jesusen Lagundia-Loiolako Santutegia	Artxiboko funts historikoak digitalizatzea	17.000
José Unanue Fundazioa	Servicio Provincial de Información-en albumak katalogatzea eta digitalizatzea; frankismoan langileei egindako elkarrizketen minutuz minutuko transkripzioa	3.500
Lazkaoko Beneditarren Fundazioa	Liga Komunista Iraultzailearen (LKI) funtsa antolatzea eta deskribatzea	4.000
Sancho el Sabio Fundazioa	M. de la Alamedaren artxiboa digitalizatzea	15.000
Zavala Fernández de Heredia, Luis M.ª	Euskal Herriko familia artxiboak berreskuratzeko laguntza-zentroaren mantentze-lanak	18.000
Zavala Fernández de Heredia, Luis M.ª	Datu-baseak handitzea eta iturrien prestaketa selektiboa digitalizatzeko eta web bidez hedatzeko	14.000
Zavala Fernández de Heredia, Luis Mª.	Artxiboa digitalizatzea: Fernández de Heredia eta Zuloaga atalak eta beste familia batzuen funtsak	15.000
Guztira		150.000